



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRAGARKIA

1. Diru-laguntzaren xedea.

Irabazi-asmorik gabeko Azkoitiko kirol elkarteei zein gizabanakoei diru-laguntzak ematea, norgehiagoka erregimenean, Azkoitian egingo den edo nagusiki azkoitiarrentzat zuzendurik dagoen kirol jarduera, ekitaldi edo txapelketa bat antolatu ahal izateko.

2. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta partida

Diru-laguntzen zenbateko osoak ez du gaindituko aipatutako xederako diru izendapena; hau da, 30.000 euro.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Kirol erakundeei diru-laguntzak - 1 3200.481.341.00.01

Kontuan hartuta, Azkoitiko Udalak kirolera bideratzen dituen deialdi bidezko diru-laguntzak hiru lerrotan banatzen direla (2025PUNT0002, 2025PUNT0003 eta 2025PUNT0004), eta guztiak goian aipatutako aurrekontu-partida beraren bidez finantzatzen direla, dirulaguntza lerro bateko deialdian aurreikusitako gastua baino zenbateko txikiagoko laguntza-eskabideak badaude edo diru-laguntza guztia ez ematea ebatzi badu organo eskudunak, erabili gabeko kopuru horren zenbatekoarekin diru-laguntza lerro baten zuzkidura handitzea erabaki dezake ebazteko gaitasuna duen organo eskudunak. Kasu hauetan, ez da beharrezkoa izango deialdi berria egitea, eta BDNS plataforman argitaratuko da aldaketa. Nolanahi ere, aurrekontu-partidaren zenbateko osoa ezingo da gainditu; hau da, 65.000 euro.

3. Irizpide orokorrak.

Antolatutako jarduera, ekitaldi edo txapelketa hauek, beti ere, bat egin behar dute Azkoitiko Udalaren helburu orokorrekin, eta kirol eta aisialdirako programen helburuekin.

ANUNCIO

1. Objeto de la subvención.

Conceder subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, tanto a asociaciones deportivas como personas físicas de Azkoitia sin ánimo de lucro, para la organización de una actividad deportiva, evento o competición que se desarrolle en Azkoitia o esté dirigida principalmente a la población azkoitiarra.

2. Importe y partida de la subvención.

El importe total de las subvenciones no superará la consignación destinada a la citada finalidad; es decir, 30.000 euros.

El gasto se hará con cargo a la siguiente partida presupuestaria: Subvenciones a entidades deportivas - 1 3200.481.341.00.01

Teniendo en cuenta que las subvenciones que el Ayuntamiento de Azkoitia destina al deporte se dividen en tres líneas (2025PUNT0002, 2025PUNT0003 y 2025PUNT0004), y todas ellas están financiadas a través de la citada partida presupuestaria en la materia, si existen solicitudes de subvención por importe inferior al gasto previsto en la convocatoria de una línea subvencional o si el órgano competente ha resuelto no conceder la totalidad de la subvención, el órgano competente para resolver podrá acordar un incremento de la dotación de una línea subvencional por el importe de dicha cantidad no utilizada. En estos casos no será necesaria una nueva convocatoria y la modificación se publicará en la plataforma BDNS. En todo caso, el importe total de la partida presupuestaria no podrá superar los 65.000 euros.

3. Criterios generales.

Las actividades, eventos o competiciones que se organicen deberán estar alineados con los objetivos generales del Ayuntamiento de Azkoitia, así como con los objetivos de los programas deportivos y de ocio.

Será necesario informar de la actividad prevista a las personas responsables del ámbito deportivo del



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru-laguntza eskaera egin baino lehen, udaleko kirol arduradunei antolatutako jardueraren berri eman beharko zaie, horien onespena jasotzeko.

Diru-laguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa da. Berau emateak ez dio Udalari inolako derrigortasunik ekarriko hurrengo ekitaldiei begira.

Diru-laguntza hauek beste batzuekin batera daitezke; horrela bada, adierazi egin beharko da jarduera bererako bestelako diru-laguntzak eskatu direla.

4. Eskatzaileak.

Diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte:

- Legez eraturako erakunde, elkarte eta taldeak.
 - Kirol jarduerak burutzen dituzten gizabanakoak edo helburu bererako elkartutako pertsona taldeak.
- Deialditik kanpo geratuko dira Azkoitiko Udalarekin kontratuz edo hitzarmen bidez ekarpen ekonomikoak jasotzen dituzten jarduerak.

5. Eskaeren aurkezpena.

Eskaerak egiteko deialdia irekia izango da. Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik den hurrengo egunetik hasita 2025eko urriaren 31a arte egin ahal izango dira eskaerak.

Diru-laguntzaren eskaera jarduera edo ekitaldiaren data baino lehen egin beharko da. Nolanahi ere, ekitaldia deialdia argitaratu baino lehen izaten den kasuetan, onartuko dira beranduago eskatutako diru-laguntzak, beti ere, udaleko kirol arduradunei aurretiaz jakinarazi bazaie.

Eskaera egiteko honako agiriak ekarri beharko dira:

- a) Diru-laguntza lehendabiziko aldiz eskatzen dutenak.
- Eusko Jaurlaritzako elkarte edo

Ayuntamiento, con anterioridad a solicitar la subvención, para recibir su visto bueno.

La subvención será voluntaria y provisional. La concesión de la misma no comportará ninguna obligación para el Ayuntamiento de cara a eventos futuros.

Las subvenciones serán compatibles con otras ayudas. No obstante, en ese caso, será necesario comunicar que se han solicitado otras subvenciones para la misma actividad.

4. Solicitantes.

Podrán solicitar las subvenciones:

- Entidades, asociaciones y agrupaciones legalmente constituidas.
- Particulares que desarrollen actividades deportivas o grupos de personas unidas para ese mismo fin.

Quedarán excluidas de la convocatoria aquellas actividades que reciban aportaciones económicas del Ayuntamiento de Azkoitia mediante contrato o convenio.

5. Presentación de solicitudes.

La convocatoria de solicitudes será abierta. Las solicitudes podrán realizarse desde el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 31 de octubre de 2025.

La solicitud de subvención deberá realizarse con anterioridad a la fecha de la actividad o del evento. En cualquier caso, si el evento tuviese lugar antes de la publicación de la convocatoria, se aceptarán solicitudes realizadas a posteriori, siempre que se hubiesen notificado con anterioridad a las personas responsables del ámbito deportivo del Ayuntamiento.

Documentación que deberá presentarse en la solicitud:

- a) Para quienes soliciten la subvención por primera vez.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

erakundeen erregistroan zein elkarteen Udal-erregistroan erroldatuta daudeneko ziurtagiria.

- Elkartearen Curriculum-Vitae: orain arte burututako jarduerak, helburuak, giza eta material baliabideak, etab..

b) Eskaera egiten duten guztiek:

- Diru-laguntza eskaeraren eranskina egoki beteta.

- Jarduera edo ekitaldiaren egitasmoa: datak, tokia, jarduera esparrua, ekitaldiaren historiala, helburuak, antolakuntzaren nondik norakoak (arduraduna, langile eta boluntarioak) jardueraren zabalkunde estrategia edota kartela, parte-hartzaileak mailaka, etab.

- Jardueraren aurrekontua: aurreikusten diren diru-sarrerak eta gastuak zerrendatuz.

Agiriok ez aurkezteak diru-laguntza jasotzeari uko egiten zaiola esan nahiko du. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutzeak dirulaguntza hau, edo ondorengoak, jasotzeko eskubide galera ekarriko du.

Eskaera ondo bete gabe badago edo agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hutsunea betetzeko eta, epe honetan osatu ez bada, agiritegira bidaliko da besterik gabe.

Aurreko urteetan eskaria egin izan duten erakunde, talde edo pertsonak datuetan aldaketarik izan badute, eskaria lehen aldiz egingo dutenei eskatutako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik oinarri espezifiko hauetan ezarritako ondorengo baldintzak. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez honako zerbitzuak eskatuko dira:

1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia:

- Certificado de inscripción en el registro de asociaciones o entidades del Gobierno Vasco o en el registro municipal de asociaciones.

- Curriculum vitae de la asociación: actividades realizadas hasta la fecha, objetivos, recursos humanos y materiales, etc.

b) Para todas aquellas personas que presenten una solicitud:

- Anexo de solicitud de la subvención, debidamente cumplimentado.

- Proyecto de la actividad o del evento: fechas, lugar, ámbito de actividad, historial del evento, objetivos, detalles de la organización (responsable, personal y personas voluntarias), estrategia o cartel de divulgación de la actividad, participantes por niveles, etc.

- Presupuesto de la actividad: con indicación de los ingresos y gastos previstos.

No presentar la documentación indicada se entenderá como una renuncia a la subvención. Asimismo, la ocultación o falsificación de datos conllevará la pérdida del derecho a recibir la presente subvención o subvenciones futuras.

En caso de que la solicitud no se hubiese completado correctamente o faltase algún documento, se otorgará un plazo de 10 días para subsanaciones. Si el error no se hubiese corregido en ese plazo, la solicitud se archivará sin necesidad de trámites adicionales.

Si las entidades, agrupaciones o personas que hubiesen presentado solicitud en años anteriores hubiesen sufrido algún cambio en sus datos, también deberán presentar la documentación indicada para quienes solicitan la subvención por primera vez.

El Ayuntamiento de Azkoitia comprobará los requisitos siguientes, establecidos en las presentes bases específicas, mediante los servicios de la plataforma de intermediación de datos o de otras administraciones. Las entidades o personas solicitantes podrán oponerse a tales comprobaciones, en cuyo caso deberán presentar la documentación correspondiente. Servicios disponibles a través de la plataforma de



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

— Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena. 2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak: — Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta. 3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra: — Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta. Ofizioz, Azkoitiko udalak egiaztatuko du udalarekin eta bere erakunde autonomoekiko zerga betebeharrak egunean dituela. Udalak beharrezko deritzon informazio osagarria eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei, aurkeztutako egitasmoaren balorazioa egin ahal izateko.	intermediación de datos: 1. Dirección General de la Policía: — Consulta y comprobación de los datos de identidad de cada persona solicitante de la ayuda. 2. Diputación Foral de Gipuzkoa y haciendas forales: — Consulta de estar al día con las obligaciones fiscales. 3. Tesorería General de la Seguridad Social: — Consulta de estar al día con las obligaciones en materia de Seguridad Social. El Ayuntamiento de Azkoitia comprobará de oficio el estado de las obligaciones fiscales para con el Ayuntamiento y sus organismos autónomos. El Ayuntamiento podrá solicitar a las entidades o personas solicitantes la información complementaria que estime oportuna, con el fin de realizar la valoración del programa presentado.
6. Elkarte edo gizabanako onuradunaren betebeharrak -Diru-laguntza emateko arrazoia izan den ekitaldia gauzatzeko konpromisoa hartzea. -Ekitaldia gauzatu duela eta diru-laguntza eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak bete dituela egiaztatzea. -Diruz lagundutako ekitaldia gauzatzeko beharrezko baimenak eskuratzeta eta haietan agindutakoa betetzea. -Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean, kontrol organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; aipatu jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da. -Lagundutako proiektua laguntzeko beste edozein administrazio edo erakundetatik (publiko nahiz pribatua, nazio mailako nahiz nazioartekoa)	6. Obligaciones de la entidad o persona beneficiaria. -Realizar y comprometerse a realizar el evento que hubiera motivado la concesión de la subvención. -Acreditar la realización del evento y el cumplimiento de los requisitos y obligaciones para la obtención de la subvención. -Obtener los permisos necesarios para la realización del evento subvencionado y respetar las condiciones de dichos permisos. -Aceptar las labores de comprobación del órgano que concede la subvención y brindarle asistencia, además de colaborar en las actividades de comprobación y control financiero que deban llevar a cabo los órganos de control, facilitando toda la información solicitada para tales fines. -Comunicar al órgano otorgante cualquier otra subvención, ayuda, ingreso o recurso recibido de cualquier otra administración o entidad (pública o privada, nacional o internacional) para el proyecto sub-



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

jasotako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada. -Entitatearen edo jardueren idatzizko, ahozko, ikus-entzumenezko eta irudizko publizitatean agerraraztea Azkoitiko Udalaren laguntza jaso dela, Azkoitiko Udalaren logotipoa jarritz. 7. Diru-laguntzak emateko irizpideak eta mugak Honako hauek izango dira kontuan diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko orduan: • Kirol jarduerak herrian duen eragina eta herriari dakarkion ekarpena. • Antolatu beharreko kirol jardueraren historiala eta garrantzia. • Elkarrekin antolakuntza eta ekonomia arloan egindako ahalegina. • Ekintzaren antolaketan erabilitako baliabideak (bitartekoak – azpiegitura – giza-baliabideak). • Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa (diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa, berrikuntza maila, etab.) • Ekintzaren iraupena, parte-hartzea eta kirol maila. • Emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimenak. • Kirol jarduerak antolatzea eskola-umeentzat, erretiratuentzat edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenentzat. • Kirol jarduera osagarriak antolatzea • Euskararen erabilera bermatzea eta sustatzea prentsa oharretan, ekitaldian, etab. Diru-laguntzak bakoitzak ezingo du, inolaz ere, 5000 euroko muga gainditu.	vencionado, en caso de que se hubiera recibido. -Indicar que se ha recibido ayuda del Ayuntamiento de Azkoitia, con el logotipo del Ayuntamiento, en la publicidad escrita, verbal, visual o audiovisual de la entidad o la actividad. 7. Criterios y límites para la concesión de subvenciones Aspectos que se tendrán en cuenta para la determinación del importe de la subvención: • Impacto de la actividad deportiva en el pueblo y contribución que realiza al pueblo. • Historial y trascendencia de la actividad deportiva prevista. • Esfuerzo organizativo y económico realizado por la entidad. • Recursos empleados en la organización del evento (medios, infraestructura, recursos humanos). • Calidad técnica del proyecto presentado (diseño, metodología, organización de recursos, nivel de innovación, etc.). • Duración, participación y nivel deportivo del evento. • Iniciativas específicas para fomentar la participación de las mujeres. • Organización de actividades deportivas para escolares, personas jubiladas o personas en riesgo de exclusión social. • Organización de actividades deportivas complementarias. • Garantía y fomento del uso del euskera en notas de prensa, el propio evento, etc. En ningún caso, cada subvención podrá superar el límite de 5000 euros.
--	--



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

8. Ebaluazio-Batzordea

Eskabideak jaso ahala, ebaluazio-batzordeak horiek banan-banan aztertu, ebaluatu eta diru-laguntza emateko proposamena egingo du, bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztuz.

Ebaluazio-batzordeak honakoek osatuko dute:

- Udal Idazkariak edo bere ordezkoko funtzionarioak.
- Udal Kontu-hartzaileak edo bere ordezkoko funtzionarioak.
- Udaleko Kirol Teknikariak edo bere ordezkoko funtzionarioak.

9. Diru-laguntzen ordainketa

Ahal den heinean, eta diru-laguntzaren eskaera garaiz egin bada, ekitaldi data baino lehen egingo da ordainketa. Nolanahi ere, hau ezin da ehuneko ehuneko ziurtatu, eta eskaera egin duena prest egon beharko da aurretiazko gastuei aurre egiteko.

10. Diru-laguntzen zuriketa

Emandako diru-laguntzak 30 eguneko epean justifikatu beharko dira, ekitaldi edo jarduera amaitzen denetik kontatzen hasita. Diru-laguntza ekitaldiaren ondoren eman bada, diru-laguntza eman zenetik hasiko da 30 eguneko epea martxan.

11. Araudia

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta Azkoitiko Udaleko Diru-laguntzen Oinarri Orokorrak (GAO,

8. Comisión de evaluación

A medida que se vayan recibiendo las solicitudes, la comisión de evaluación las examinará, evaluará y elevará la propuesta de concesión de la subvención, especificando la cuantía de cada una de ellas.

La Comisión de Evaluación estará compuesta por:

- La Secretaría del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue.
- La Interventora del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue.
- El técnico de deportes del ayuntamiento o funcionario en quien delegue.

9. Abono de las subvenciones

En la medida de lo posible y siempre que la solicitud de subvención se hubiese realizado en plazo, el abono se realizará con anterioridad a la fecha del evento. No obstante, este extremo no se puede garantizar al cien por cien y la persona o entidad solicitante deberá estar dispuesta a asumir gastos previos.

10. Justificación de la subvención

Las subvenciones concedidas deberán justificarse en un plazo de 30 días a partir del final del evento o la actividad. Si la subvención se hubiese concedido después del evento, el plazo de 30 días comenzará a contar en el momento de concesión de la subvención.

11. Normativa

Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre); el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de ju-



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

54 zk., 2023ko martxoaren 20a) eta Oinarri Espezifikokoak (GAO, 37 zk., 2025ko otsailaren 25a). 12. Errekurtsoak Deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian eta Berraztertze Errekurtsoa deialdi honen ebazpenaren aurka hilabeteko epean. Epeak deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.	lio); las Bases Generales del Ayuntamiento de Azkoitia (BOG, nº 54 de 20 de marzo de 2023) y Bases Específicas (BOG, nº 37 de 25 de febrero de 2025). 12. Recursos Contra la presente convocatoria cabe interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses y Recurso de Reposición contra la resolución de esta convocatoria en el plazo de un mes. El plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

KULTURA DEPARTAMENTUA – Tel . 943 857170 / Fax. 943 852140 - kultu@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: ESKU75f38ddd-8acf-4b01-bb2f-79c208280ae9

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025PUNT0003-Deialdia argitaratzeko/Deialdia argitaratzeko (AZKOITIKO UDALA)